



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
LEHENDAKARITZA
PRESIDENCIA



11\11\02\01\0264 espediente zk.
11\11\03\00\0037

N.º expediente: 11\11\02\01\0264
11\11\03\00\0037

Mariano Rajoy Brey jn.
Gobernuko presidentea

D. Mariano Rajoy Brey
Presidente del Gobierno

Jaun agurgaria:

Estimado señor:

Eusko Legebiltzarrak, 2017ko azaroaren 23an egindako osoko bilkuran, 141/2017 Legez besteko Proposamena onetsi du, Saudi Arabiarekiko harreman politikoei eta hari armak saltzeari buruz, eta 26/2017 Mozioa, Bilboko portutik ontziek armamentu militarra garraiatu ez dezaten hartu asmo dituen neurriei buruz, honako testu honen arabera:

El Pleno del Parlamento Vasco, en la sesión celebrada el 23 de noviembre de 2017, ha aprobado la Proposición no de Ley 141/2017, relativa a las relaciones políticas y venta de armas a Arabia Saudí, y la Moción 26/2017, relativa a las medidas que se propone adoptar para que las embarcaciones no transporten armamento militar desde el puerto de Bilbao, con arreglo al siguiente texto:

- "1. Eusko Legebiltzarrak Espainiako Gobernuari hertsatuki eskatzen dio arma-baimena ezeztatu edo baliogabetu diezaiela haien baitan jazarpen eta indarkeria politikoko egoera duten estatuei, armak giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen urraketa larriak egiteko arrazoizko zantzuak dituzten estatuei.
2. Eusko Legebiltzarrak elkartasuna adierazten dio Yemengo populazio zibilarari, Saudi Arabia buru duen Arabiar Liga koalizioaren aldetik eraso militarrek pairatzen baititu.
3. Eusko Legebiltzarrak eskatzen du Saudi Arabiak gidatutako arabiar koalizioak berehala eten dezala populazio zibilaren aurkako bonbardaketa oro.
4. Eusko Legebiltzarrak eskatzen du Saudi Arabiak gidatutako arabiar koalizioak Yemenen aurka duen blokeoa berehala eten dezala; eta premiaz eskatzen die nazioarteko komunitateari, oro har, eta Eusko Jaurlaritzari, zehazki, laguntza humanitarioa eman dezatela.
5. Eusko Legebiltzarrak Iranek babestutako huzien gerrilla matxinoari hertsatuki eskatzen dio bete ditzala NBEren ebazpen guztiak eta berehala utz ditzala bertan behera erasoak eta misil balistikoen erabilera.

- "1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno de España a denegar o revocar la autorización de armas a aquellos estados en los que haya una situación de represión y violencia política interna y existan indicios racionales de su uso para cometer graves violaciones del derecho internacional de los derechos humanos.
2. El Parlamento Vasco declara su solidaridad con la población civil del Yemen, que sufre agresiones militares por parte de la coalición de la Liga Árabe liderada por Arabia Saudí.
3. El Parlamento Vasco pide el fin inmediato de todo bombardeo contra la población civil por parte de la coalición árabe liderada por Arabia Saudí.
4. El Parlamento Vasco pide el fin inmediato del bloqueo de la coalición árabe liderada por Arabia Saudí contra Yemen, y pide urgentemente a la comunidad internacional, en general, y al Gobierno Vasco, en particular, a que aporte una ayuda humanitaria.
5. El Parlamento Vasco insta a la guerrilla rebelde huzie apoyada por Irán a que cumpla las diferentes resoluciones de la ONU y cese de inmediato sus ataques y el uso de misiles balísticos.





6. Eusko Legebiltzarrak Espainiako Gobernuari hertsatuki eskatzen dio armak esportatzeko kontrol-neurriak indartu ditzala, esportazioak Diputatuen Kongresuak kontrola ditzala eta erabilera-bermerik handiena zein dagokion informazio publikoa izan ditzatela.
 7. Eusko Legebiltzarrak Europar Batasunari hertsatuki eskatzen dio ezar dezala Saudi Arabiari armak saltzeko benetako bahimendua.
 8. Eusko Legebiltzarrak aitortzen du zeregin garrantzitsua dutela helmugako herrialdeetan presentzia duten izen oneko GKEk eta nazioarteko erakundeek, giza eskubideen urraketari buruz erakunde horiek egiten dituzten kontrol, salaketa eta gomendioei dagokionez".
6. El Parlamento Vasco insta al Gobierno de España a reforzar las medidas de control de las exportaciones de armamento, a que estas sean controladas por el Congreso de los Diputados y a que gocen de la mayor garantía de su uso, así como de la correspondiente información pública.
 7. El Parlamento Vasco insta a la Unión Europea a imponer un embargo efectivo de venta de armas a Arabia Saudí.
 8. El Parlamento Vasco destaca el papel que juegan las ONG y las organizaciones internacionales de reconocido prestigio con presencia en los países de destino, respecto al control, denuncias y recomendaciones que llevan a cabo sobre la violación de derechos humanos".

Eta horrela jasota geratzeko, eta erabakitakoa bete dadin, ziurtagiri hau egiten da Eusko Legebiltzarreko lehendakariaren oniritziarekin, Gasteizen, 2017ko azaroaren 23an.

Y para que así conste, y en orden a su ejecución, se expide la presente certificación con el visto bueno de la presidenta del Parlamento Vasco, en Vitoria-Gasteiz, a 23 de noviembre de 2017.

Ontzat emana
EUSKO LEGEBILTZARREKO LEHENDAKARIA
Visto bueno
LA PRESIDENTA DEL PARLAMENTO VASCO

MAHAIKO LEHEN IDAZKARIA
EL SECRETARIO PRIMERO DE LA MESA

Bakartxo Tejeria Otermin



Iñigo Iturrate Ibarra

